

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 7/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, ekainaren 2koa. Onestea COVID-19arekin lotura duten eta sozietateen gaineko zergari eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eragiten dieten premiazko neurriak

COVID-19k eragindako larrialdi egoera dela-eta, foru erakundeek alarma egoera deklaratu zenetik onetsiz joan diren zerga neurriak hartu beharra dago.

Une honetan, beharrezkoa da gure lurralde historikoko zerga sistemaren oinarriko bi zerga hauekin lotutako neurri berriak hartzea: sozietateen gaineko zerga eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, baldintza normaletan 2020ko uztailean aurkeztuko liratekeen autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko epea adierazten da. Gainera, urte honetan egin beharreko ordainketa zatikatua arautzen da, eta zerga oinarri negatiboak konpentsatzeko ezarritako mugaren aldaketa garrantzitsu bat sartzen da.

Era berean, zerga horri dagokionez, zabaldu egiten da mikroenpresek aplikatu beharreko gastuen arau orokorra, handitu egiten da enplegua sortzearen kenkaria, amortizazio bizkortua ezartzen da zerga premiazko araugintzako dekretu hau indarrean sartzen den egunetik 2020ko abenduaren 31ra bitartean eskuratzen diren ibilgetu materialeko elementu berrietarako, eta bi kenkari berri sortzen dira, bat garbiketa eta desinfekzio materialak eta osasun segurtasuna bermatzeko beste elementu batzuk eskuratzegatik, eta beste kenkari bat mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzeagatik.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ere kenkari berri bat sortu da mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzeagatik.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hauxe

XEDATZEN DUT

I. kapitulua. Sozietateen gaineko zerga

1. artikulua. Sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkor bat duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko epea

Bat. Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 13. artikuluen 1. eta 2. apartatuetan zehaztutako mikroenpresek eta enpresa txikiek, foru arau horretako VI. tituluko VI. kapituluan aipatzen araubide berezia ez badute, 2020ko uztailearen 1etik 2020ko irailaren 25era bitartean aurkeztuko dituzte sozietateen gaineko zergaren autolikidazioak.

Autolikidazio horiek kuota positiboak ematen badituzte, egutegi honi jarraituz helbideratuko dira:

a) 2020ko uztailearen 1etik 27ra bitartean aurkeztutako autolikidazioak: helbideratzea 2020ko uztailearen 30ean egingo da.

a) 2020ko uztailaren 28tik 2020ko irailaren 25era bitartean aurkeztutako autolikidazioak: helbideratzea 2020ko irailaren 30ean egingo da.

Bi. Aurreko apartatuan ezarritako epea eta helbideratzeen egutegia ondare sozietateei, partzialki salbuetsita dauden erakundeei eta irabazteko asmorik gabeko erakundeei ere aplikatuko zaizkie, baldin eta, hurrenez hurren, erakunde horiek Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 14. eta 12.2 artikuluetan eta Irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauan araututa badaude.

Hiru. Artikulu honen aurreko bi apartatuetan berariaz jasota ez dauden sozietateen gaineko zergaren gainerako zergadunek 2020ko uztailaren 1etik 2020ko uztailaren 27ra bitarteko epean aurkeztuko dituzte sozietateen gaineko zergari dagozkion autolikidazioak.

Autolikidazio horiek kuota positiboak ematen badituzte, 2020ko uztailaren 30ean helbideratuko dira.

Lau. Aurreko apartatuetan xedatutakoa establezimendu iraunkorrei eta Araban presentzia duten eta Errenta egozketaren araubidean dauden erakundeei dagokien ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari ere aplikatuko zaio.

2. artikulua. Zerga oinarri negatiboaren konpentsazioa

Bat. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan aipatzen diren mikroenpresek, enpresa txikiek eta enpresa ertainek, foru arau horretako VI. tituluko VI. kapituluan aipatzen araubide berezia ez badute, zerga oinarri negatiboaren konpentsazioa aplikatu ahal izango dute foru arauaren 55. artikuluko 1. apartatuaren lehen paragrafoan aipatzen den muga izan gabe, eta 55. artikuluko horretan xedatutakoa bete beharko da.

Bi. Aurreko paragrafoan xedatutakoa 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldiei aplikatuko zaie.

3. artikulua. 2020ko sozietateen gaineko zergaren ordainketa zatikatua

2020an ez dira ordainketa zatikatua egitera behartuta egongo, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 130 bis artikulua 1. apartatuan aurreikusitako zergadunetz gain, 2020ko lehen seihilekoko eragiketa bolumena 2019ko lehen seihilekoko eragiketa bolumenaren ehuneko 25 baino txikiagoa dutenak.

Aurreko lerrokadan adierazitakoak ez die eragingo Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren VI. Tituluko VI. Kapitulan aipatzen den araubide berezia izan eta aipatutako Foru Arauaren 13. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten sozietate taldeei.

Era berean, artikulu honen lehenengo paragrafoan adierazitakoak ez die eragingo Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arau horren 13. artikulua 1. eta 2. apartatuetako b) eta c) letretan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten ondare sozietateei.

4. artikulua. Gastuei buruzko arau berezia

Bat. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako soilik, ehuneko 15ekoa izango da zerga konpentsazioari zegokion ehuneko 10eko portzentajea, neurriak dakartzan zailtasunengatik, eta Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 4. apartatuko gainerako edukia aplikatuko da

Bi. Aurreko apartatuan xedatutakoa 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldiei aplikatuko zaie.

5. artikulua. Enplegua sortzearen kenkaria

Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 66. artikuluan aipatzen den enplegua sortzearen kenkaria aplikatzearen ondorioetarako, honako berezitasun hauek aplikatuko dira 2020an egiten diren lan kontratazio mugagabeei dagokienez:

a) Aipatutako 66. artikulua 1. apartatuaren bigarren paragrafoan aipatzen den pertsona kontratatu bakoitzeko aplikatu beharreko kenkariaren gehieneko muga urteko soldata gordinaren ehuneko 25 izango da, 7.500 euroko mugarekin.

b) Kontratututako pertsona 66. artikuluko 1. apartatuko hirugarren paragrafoan aipatzen diren eta lan merkaturan sartzeko zailtasun berezia duten kolektiboetako batean sartuta badago, zenbateko kengarria aurreko a) letran adierazitakoaren arabera kengarria denaren bikoitza izango da.

6. artikulua. Ezohiko amortizazio bizkortua

Ibilgetu materialeko elementu berriak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 31. artikulua 3. apartatuaren a) letran eta d) letraren lehen eta bigarren paragrafoetan adierazitako arauak aplikatzen zaizkien eraikinak eta garraiobideak izan ezik, baldin eta zerga premiazko araugintzako dekretu hau indarrean sartzen den egunetik 2020ko abenduaren 31ra bitartean eskuratzen badira, martxan jartzen direnetik aurrera amortizatu ahal izango dira, aipatutako foru arauaren 17. artikuluan jasotako taulan aurreikusitako gehieneko amortizazio koefizientea bider 1,5 eginda ateratzen den koefizientearen arabera, barne hartuta enpresak berak eta zerga premiazko araugintzako dekretu hau indarrean sartzen den egunetik 2020ko abenduaren 31ra bitartean izenpetutako obra egiteko kontratu baten bidez enkargatutakoek arduradunek eraikitako ibilgetu materialaren elementuak, baldin eta eskuragarri jartzen bada abenduaren 31 baino hurrengo hamabi hilabeteetan.

7. artikulua. Garbitzeko eta desinfektatzeko materialak eta osasun segurtasuna bermatzeko beste elementu batzuk eskuratzearen kenkaria

Bat. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako soilik, zergadunak garbiketarako eta desinfektaziorako materialak eta lantokien, langileen eta jardueraren garapenarekin harremana edo lotura duten pertsonen osasun segurtasuna bermatzeko beste elementu batzuk erosteak eskubidea sortuko du sozietateen gaineko zergaren kuota likidoan kenkaria egiteko, hain zuzen, erosketari haiei zuzendutako zenbatekoaren ehuneko 10ekoa.

Bi. Aurreko kenkaria 2.500 eurokoa izango da gehienez.

Hiru. Aurreko apartatuan aipatutako muga gainditu gaitzearatik kendu ez diren kopuruak ezin izango dira hurrengo zergaldietan aplikatu.

Lau. Artikulu honetan araututako kenkariari Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 67. artikuluan aipatzen diren arau orokorrak aplikatuko zaizkio.

Bost. Artikulu honetan xedatzen dena 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean hasten diren zergaldietan aplikatuko da.

Sei. Artikulu honetan araututako kenkarirako eskubidea sortzen duten garbiketari eta desinfektaziorako materialak eta bestelako elementuak erregelamendu bidez zehaztu ahal izango dira.

8. artikulua. Mikroenpresetan, enpresa txikietan edo enpresa ertainetan inbertitzearen aparteko kenkaria

Bat. Sozietateen gaineko zergaren zergadunek Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan mikroenpresa, enpresa txiki edo ertainzat hartzen diren enpresetako akzioak edo partaidetzak harpidetzean edo eskuratzean 2020an ordaindutako zenbatekoaren ehuneko 10 kendu ahal izango dute zergaren kuota likidotik.

Kenkari hau lortzeko, eskuratutako edo harpidetutako akzioak edo partaidetzak zergadunaren ondarean egon beharko dute bost urte baino gehiagoan.

Kenkari oinarria gehienez 100.000 euro izango da, eta harpidetutako akzioen edo partaidetzen eskuratze balioak osatuko du.

Bi. Aurreko paragrafoan ezarritako kenkaria 2020ko ekitaldian ordaindutako zenbatekoen ehuneko 15ekoa izango da, enpresa sortu berrien akzioak edo partaidetzak harpidetzeko edo eskuratzeko denean, baldin eta horiek mikroenpresa, enpresa txiki edo ertaintzat hartzen badira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, betiere, 5. paragrafoan xedatutakoa betetzen bada. Kapitalari egindako aldi baterako ekarpenaz gain, parte hartzen duen erakundearen garapenerako egokiak diren enpresa edo lanbide ezagutzak eman ahal izango ditu, zergadunaren eta erakundearen arteko inbertsio akordioan ezartzen diren baldintzetan.

Kenkari hori aplikatzeko, enpresak jarduera ekonomiko berria gauzatzeko behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak izan beharko ditu. Ez da baldintza hori betetzat joko honako eragiketa hauen ondorioz sortutako sozietateak badira: bat egitea, banantzea, aktiboen ekarpena, aktiboaren eta pasiboaren lagapen globala, jarduera adarren ekarpenak, interes ekonomikoko taldeak egitea, aldi baterako enpresa elkarteak eta jarduera ekonomiko berria sortzea benetan ez dakarten bestelako eragiketen bidez.

Erakunde batean akzioak edo partaidetzak harpidetzeak edo eskuratzek ez du kenkari hau aplikatzeko eskubiderik emango, baldin eta lehendik beste titulartasun baten bidez gauzatzen zen jarduera bera erakunde horren bidez gauzatzen bada.

Apartatu honetan aurreikusitako kasuetan, kenkari oinarria gehienez 150.000 euro izango da, eta harpidetutako akzioen edo partaidetzen eskuratze balioak osatuko du.

Hiru. Aurreko paragrafoetan ezarritako kenkaria 2020ko ekitaldian ordaindutako zenbatekoen ehuneko 20koa izango da, enpresa berritzaileen akzioak edo partaidetzak harpidetzeko edo eskuratzeko denean, baldin eta horiek mikroenpresa, enpresa txiki edo ertaintzat hartzen badira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, betiere, 5. apartatuan xedatutakoa betetzen bada. Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira enpresa berritzailetzat: Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 80. apartatuan xedatutakoa betetzen dutenak (Erregelamendu horren bidez, laguntza kategoriatzat barne merkatuarekin bateragarri deklaratuak dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko aplikatuz).

Apartatu honetan aurreikusitako kasuetan, kenkari oinarria gehienez 200.000 euro izango da, eta harpidetutako akzioen edo partaidetzen eskuratze balioak osatuko du.

Lau. Aurreko hiru apartatuetan ezarritako kenkariak aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Sozietate anonimoa, erantzukizun mugatuko sozietatea, kooperatiba, lan sozietate anonimoa edo lan erantzukizun mugatuko sozietatea izango dira kenkari hau aplikatuko zaien akzioak edo partaidetzak eskuratzen edo harpidetzen dituzten erakundeak, uztailaren 2ko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bateginean eta sozietate laboral eta partaidetuen urriaren 14ko 44/2015 Legean aurreikusitako moduan, eta, era erean, ez dira inongo merkatu antolatutan negoziatzeko onartuta egongo. Akzioa edo partaidetza edukitzen den urte guztietan bete beharko da baldintza hori.

b) Zergadunaren zuzeneko eta zeharkako partaidetza ezin izango da izan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42. artikuluen 3. apartatuan ezarritako baldintzetan harekin lotuta dagoen edozein pertsonak edo erakundek duenarekin batera, erakundearen kapital sozialaren edo bere boto eskubideen ehuneko 25 baino handiagoa, partaidetza hori izaten den urte naturaletako ezein egunetan.

Bost. Aurreko 2. eta 3. apartatuetan ezarritako kenkariak aplikatze aldera, Zergadunak entitatea eratzen den unean bertan eskuratu beharko ditu akzioak edo partaidetzak, kapital handitzearen bidez, edo bestela hura, eratu ondoko bost urteetan bigarren mailako merkatuan eskuratu beharko ditu eta partaidetza edo akzio horiek ondarean eduki beharko bost urtean baino luzaragoan.

3. apartatuan aipatzen den kasuan, akzioak edo partaidetzak eraketa horren ondorengo zazpi urteko epean harpidetu edo eskuratu beharko dira, baina epe hori ez da eskatuko arriskuko finantzaketaren hasierako inbertsio bat behar duten erakundeen kasuan, baldin eta, merkatu geografiko edo produktu merkatu berri batean sartzeko egindako negozio plan batean oinarrituta, inbertsioa aurreko bost urteetako urteko eragiketen bolumenaren batez bestekoaren ehuneko 50 baino handiagoa bada.

Sei. Artikulu honetan araututako kenkaria ez zaie aplikatuko honako kasu hauetakoren batean dauden erakundeetan egindako inbertsioei:

a) Berreskuratze agindu baten mende dauden enpresak, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko eta barne merkatuarekin bateraezina dela.

b) Krisian dauden enpresak, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 18. apartatuan xedatutakoaren arabera. Erregelamendu horren bidez, laguntza kategoria batzuk barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira.

c) Aurreko bat, bi eta hiru apartatuetan aipatzen diren akzioak edo partaidetzak jaulkitzean Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 21. artikuluko 9. apartatuan aipatzen den arriskuko finantzaketaren zenbateko osoa gainditu duten edo gainditzuten enpresak. Erregelamendu haren bidez, laguntza-kategoria jakin batzuk barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, 107. artikulua eta 108. artikulua aplikatuz.

Zazpi. Artikulu honetan araututako kenkaria aplikatzeko, ezinbestekoa izango da akzioak edo partaidetzak harpidetu edo eskuratu dituen entitateak emandako ziurtagiria lortzea. Ziurtagiri horretan adierazi behar da eskuraketa gertatu zen zergaldian betetzen zirela entitateak kenkaria jasotzeko eskubidea izateko eskatzen ziren baldintzak.

Horrez gain, hiru apartatuan araututako kasuan, erakundeak Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 80. apartatuan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu, aditu independenteek baldintza horiek betetzen direla egiaztatuta. Erregelamendu horren bidez, laguntza kategoria jakin batzuk barne merkatuarekin bateragarri deklaratzeko dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

Zortzi. Bat apartatutik zazpi apartatura bitartean ezarritako betekizunak betetzen ez badira, zergadunak kenkariaren ondoriozko kuota sartu behar du ez-betetzea gertatu den zergaldiari dagokion autolikidazioan, kasuan kasuko berandutze interesekin batera.

Bederatzi. Kenkari hau aplikatzeko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 59. eta 67. artikuluetan xedatutakoa hartu beharko da kontuan, eta, ondorio horietarako, Foru Arau horren V. Tituluko III. kapituluaren aurreikusitako kenkariei aplikatu beharreko arau orokorrak aplikatuko zaizkie.

Zehazki, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 67.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, funts berberetik ezingo diote kenkarirako eskubiderik eman pertsona edo erakunde bati baino gehiagori.

Hamar. Kenkari hau aplikatu ahal izateko, autolikidazioa aurkeztu behar da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 128. artikuluan xedatzen den moduan eta hartan adierazitako ondorioekin.

Hamaika. Apartatu honetan araututako kenkaria aplikatu ahal izango dute, halaber, establezimendu iraunkor baten bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, baldin eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko ekainaren 18ko 21/2014 Foru Araua aplikatzen bazaie.

9. artikulua. Aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteek zerga tratamendu batzuetan duten eragina

Zerga araubideak eta kenkariak eskuratzeko baldintzak betetze aldera, aldi baterako enplegu erregulazioko espediente batean (ERTE) dauden pertsonak beren zerbitzuak ematen zituzten enpresako langiletzat hartuko dira, espedienteak irauten duen bitartean.

10. artikulua. Finantza errentamenduko kontratuak

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 18. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie 2020an berriz negoziatzen diren edo sinatzen diren finantza errentamenduko kontratuei, nahiz eta kontratu horiek ez bete 18. artikulua 1. apartatuko f) letran aurreikusitako baldintza.

II. kapitulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

11. artikulua. Mikroenpresetan, enpresa txikietan edo enpresa ertainetan inbertitzearen aparteko kenkaria

Bat. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek Zerga Premiazko Araugin-tzako Dekretu honen 8. artikuluan ezarri den mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzearen aparteko kenkaria aplikatu ahal izango dute 2020ko zergaldiari dagokion autoliki-dazioan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 90. artikuluan jasotako kenkariaren orde, honako berezitasun hauekin:

a) Kenkari hau aplikatzeko, zergadunaren zuzeneko eta zeharkako partaidetza –entitate horretan bere ezkontideak edo izatezko Bikoteak arautzen dituen Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren arabera eratuta dagoen izatezko bikoteko kideak edo berarekin ahaidetasuna (zuzena zein albokoa), odolkitetasuna edo ezkontza ahaidetasuna (bigarren maila barne) dela bide lotuta dagoen edozein pertsonak duenarekin batera– ezin izango da izan entitatearen kapital sozialaren edo bere boto eskubideen ehuneko 25 baino gehiago, partaidetzak irauten duen aldiko egun bakar batean ere.

b) Ken daitekeen gehieneko kopurua ezin daiteke izan zergadunari dagokion likidazio oinarriaren ehuneko 15 baino gehiago.

c) Ezarritako mugak gainditzeagatik kendu ez diren zenbatekoak ondoz ondoko hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan aplikatu ahal izango dira, aipatu diren mugak errespetatuz.

d) Kenkari hau aplikatzeko, ez da aplikatuko Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen 8. artikuluko bederatzi apartatuan xedatutakoa.

e) Kenkari hau aplikatu ahal izateko, autolikidazioa aurkeztu behar da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 105. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bi. Entitateen akzioen eta partaidetzen eskualdaketari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 42. artikuluko g) letran xedatutakoa aplikatuko zaio, zergadunak horiek eskuratzeko mikroyenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzearen ezohiko kenkaria aplikatu bazuen aurreko paragrafoan jasotako berezitasunekin.

Hiru. Ondarearen gaineko Zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 5. artikulua Hamabost apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie zergadunak Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen 8. artikuluan ezartzen den mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzearen ezohiko kenkaria, aurreko bat paragrafoan jasotako berezitasunekin, egin dien entitateetako akzio eta partaidetzei.

12. artikulua. Etekin garbia ardogileen jarduerari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza jarduerari aplikagarria zaien zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan

Indarraldia 2020an baino izango ez duelarik, ehuneko 40koa izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia onartzen duen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren 33. artikulua 1. apartatuaren c) letran aipatzen den ehunekoak.

III. kapitulua. Mezenasgoko lehentasunezko jarduerak

13. artikulua. Lehentasunezko mezenasgo jarduerak

Bat. 2020rako lehentasunezko zatitako jarduerari edo programei honako zerga pizgarri hauek aplikatuko zaizkie:

a) Lehentasunezko zatitako jarduerari edo programetarako diru zenbatekoak gastu kengarri izango dira sozietateen gaineko zergaren oinarria eta establezimendu iraunkorraren bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren oinarria zehazterakoan; enpresaburuentzat eta profesionalentzat, berriz, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespenaren araubidean.

b) Sozietateen gaineko zergaren edo establezimendu iraunkorraren bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek kendu egin dezakete zehaztutako kuota likidotik lehentasunezko zatitako jardueretarako diru kopuruaren ehuneko 23, baita publizitate babeserako kontratuak direla-eta emandako diru kopuruak ere.

Letra honetan ezarritako kenkariari Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak bere 67. artikuluan ezarritako arauak aplikatuko zaizkio, arau horren 1. zenbakian ezarritako baterako muga gainditu gabe eta autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat dela kontuan hartuz, betiere Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak bere 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako eta borondatezko aitortpen epea aldatu gabe amaituta badago.

c) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek, zuzeneko zenbatespenaren pean gauzatzen badituzte ekonomia jarduerak, kendu egin dezakete kuota osotik lehentasunezko zatitako jarduerari edo programetarako diru zenbatekoaren ehuneko 23, publizitate babeserako kontratuak direla-eta emandako diruak ere barne direla.

d) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren gainontzeko subjektu pasiboek, aurreko c) letran sartuta ez badaude, kendu egin ditzakete kuota osotik lehentasunezko zatitako jarduerari edo programetarako diru kopuruaren ehuneko 35.

Aurreko c) eta d) letratan ezarritako kenkariaren oinarria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 3/2013 Foru Arauan adierazten diren mezenasgoaren kenkari guztien oinarrian sartuko da, foru arau horretan ezarritako muga ondorioetarako.

Bi. Aurreko apartatuan xedatutakoa irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgoarako zerga pizgarrien zerga araubidearen uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak 29. artikulua 2. eta 3. apartatueta ezarritakoarekin osatuko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bat. Zergaren autolikidazioa zerga premiazko araugintza dekretu honen 1. artikuluan adierazitako epeetan aurkezten denean eta, ondoren, autolikidazio osagarri edo ordezkotzat aurkeztu behar denean COVID-19ren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. eta 41. artikuluetan

xedatutakoa betez ekitaldiko urteko kontuak prestatu eta onestearen ondorioz, ez da aplikatuko Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 27. artikuluan araututako errekgua, baina berandutze interesak sortuko dira. Horretarako, baldintza hauek bete behar dira:

a) Hasierako autolikidazioa zerga premiazko araugintzako dekretu honen 1. artikuluan adierazitako epeetan aurkeztu behar da.

b) Aurreko letran aipatzen den autolikidazioa urteko kontu erabilgarrietara egokitu behar da, eta kontu horiek erakundearen benetako egoera islatu behar dute.

c) Autolikidazio osagarria edo ordezkoa 25 egun naturaleko epean aurkeztu behar da, alarma egoera eta horren ondorengo luzapenak amaitu eta hurrengo sei hilabeteen barruan.

Bi. Aurreko zenbakiko b) letran xedatutakoaren ondorioetarako, urteko kontu erabilgarriak hauek direla ulertuko da:

a) Sozietate anonimo kotizatuen kasuan, 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 41. artikuluen 1. apartatuaren a) letrak aipatzen dituen urteko kontu ikuskatuak.

b) Gainerako zergadunentzat, urteko kontu ikuskatuak, edo, halakorik ezean, dagokion organoak prestatutako urteko kontuak, edo, halakorik izan ezean, merkataritza kodean aurreikusitakoaren arabera edo haiek arautzen dituzten arauetan ezarritakoaren arabera eramandako kontabilitate erabilgarria.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau ALHAOn argitara ematen den egun berean jarriko da indarrean, eta haren artikuluetan xedatutakoarekin bat etorri izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundiari eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaie zerga premiazko araugintzako dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Batzar Nagusiei jakinaraziko zaie, indarreko araudiaren arabera izapidetu dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA